

EUSKO JAURLARITZAN ETA BERE ERAKUNDE AUTONOMOETAN EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO IV. PLANGINTZALDIA

Patxi Baztarrika

Hizkuntza Politikarako Sailburuordea

- Abian da IV. Plangintzaldia. Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluak 2008ko uztailaren 1eko batzarrean onartu du Euskadiko Autonomi Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta bere erakunde autonomoetan euskararen erabilera normalizatzeko Plan berria.
- 86/97 dekretuaren arabera, herri-administrazio bakoitzak –beraz, baita Eusko Jaurlaritzak ere- euskararen erabilera plana onartu behar du bost urtetik bost urtera (2008 – 2012 tartetarako onartu behar da aurtengo urtearen barruan).
- Plan hori jendaurrean aurkeztea da gaurko prentsaurrekoaren bidez egitera goazena.
- Gaurko prentsaurrekoan, gainera, Plan hori langile guztiei ezagutzera emateko prestatu dugun komunikazio-kanpaina ere aurkeztuko dugu.
- IV. Plangintzaldi honetarako Planaren muina eta helburua da: euskararen erabilera pixkanaka bultzatzea. Euskara gauza asko da, baina ororen gainera komunikaziorako tresna da: neurri horretan, bere etorkizuna bermatu dezakeen gauza bakarria erabilia izatea da, erabili ezean akabo.
 - Euskararekin konprometiturik gaude, euskararen erabilera bultzatu nahi dugu,
 - gure gizartea benetan gero eta elebidunagoa izan dadin nahi dugu,
 - gure gizartean euskara eta gaztelaniaren arteko erabilera-aukeretan gero eta berdintasun handiagoa izatea nahi dugu,
 - hizkuntza kontuetan ere gero eta desberdintasun gutxiago eta gero eta berdintasun gehiago nahi dugu, gero eta askatasun gehiago,
 - eta beti, kasu guztietan, herritarraren hizkuntza-aukera ororen gainera normaltasunez errespetatzea nahi dugu.

Horregatik, eta badakigulako giltzarria erabilera dela, herritarren hizkuntza-aukera guztiz errespetatuz euskararen erabilera administrazioetan bultzatzea da Plan honen helburu nagusia.

IV. Plangintzaldiaren eragin-eremua eta eragin-epea

- Eragin-eremua:
 - EAEko Administrazio Orokorra
 - EAEko Administrazio Orokorraren erakunde autonomoak
 - EAEko Administrazio Orokorrari atxikitako sozietate publikoak eta zuzenbide pribatuko ente publikoak.
- Eragin-epea: 2008 – 2012.
- Helburua: euskara ere, gaztelaniarekin batera, Administrazioko lan-hizkuntza “normala” izatea.

IV. Plangintzaldiaren marko legala

Bost dira Eusko Jaurlaritzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planaren marko legala osatzen duten arauak:

- Autonomia Estatutua (1979)
- Euskararen Legea (1982)
- Auzitegi Konstituzionalaren Epaia Euskararen Legeari buruz (1986)
- Euskal Funtzio Publikoaren Legea
- Herri Administrazioaren euskararen erabilera normalizatzeko arauak ematen dituen Dekretua (1997)

Arau horien arabera Eusko Jaurlaritza beharturik dago, pixkanaka, modu progresiboan alegia, honako hauek egitera:

- Euskararen erabilera bermatzera
- Herritarrei eurek aukeraturiko hizkuntza ofizialean zerbitzua ematera
- Euskara zerbitzu-hizkuntza eta lan-hizkuntza bezala erabiltzera
- Lanpostuak betetzerakoan edo beteta daudenetan jarduterakoan euskararen ezagutza kontuan hartzera modu

honetara: euskararen ezagutza nahitaez egiaztatuz lanpostu batzuetan, eta euskararen ezagutza merezimendu gisa baloraturaz gainontzeko lanpostu guztietan.

- Lanpostuen hizkuntz eskakizunei derrigortasun-data jartzeko indize jakin bat erabiltzera, Biztanleria eta Etxebizitza Zentsuko datu linguistikoaren arabera indizea:
euskdunak + ia euskaldunak/2.
- Bost urterako erabilera-plana egin eta garatzera

Abiapuntua: gaur eguneko egoera.

- Ez gara gaur hasi: urteak dira herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko urratsak ematen ari garela. Kontu hauek perspektiban begiratu behar dira, eta hiruzpalau datu emango ditugu gaurko errealitatea azaltzen dutenak, eta azken 12 urteotako saltoa erakusten dutenak.
- Duela 25 urte arte, euskarak ez zuen izan batere presentziarik gure administrazioetan. Bai administrazioek, bai herri-langileek, ahalegin handia egin dute urteotan egoera hori aldatzeko. Ahalegin hori aitortu eta eskertu egin behar da. Ahalegin horren ondorioz gaur egun milaka batzuk gehiago dira lana euskaraz egiteko gaitasuna duten langileak, eta gaur inoiz baino gehiago erabiltzen da euskara administrazioetan.
- Oraingoa ez da lehen plangintzaldia, oraingoa IV. plangintzaldia da.
- Ezagutza nahiko handia da, baina urria da erabilera. Ezagutza handitzeko urteotan egin den ahaleginari ez zaio espero zitekeen adinako etekinik atera.
- Euskararen presentzia nahiko bermatua dago arlo hauetan:
 - hizkuntza paisaia,
 - kanpo proiektzioa,
 - erakundearen kanpo-harreman ofizial idatzizkoetan
- Euskararen presentzia batez ere itzulpenari esker bermatzen da. Itzultzen den guztiaren %80 baino gehiago gaztelaniatik euskarara itzultzen da.

- 2008ko uztailearen 7ko datuak dira ondorengoak:
 - Eusko Jaurlaritzako (Administrazio Orokorra eta erakunde autonomoak) lanpostu-kopuru osoa: 6.556 langile.
 - Derrigortasun-data duten lanpostuak: 2.680 (lanpostu guztien % 41).
 - Derrigortasun-datarik ez dutenak: 3.876 (lanpostu guztien % 59).
 - Beraz, lanpostuen %59an jarduteko ez da ezinbestekoa euskararen ezagutza egiaztatzea, bai, ordea, lanpostuen % 41ean jarduteko.

Datuak aztertzerakoan, komeni da bereiztea: lanpostuen titularrei dagozkien datuak, batetik, eta gaur egun lanpostuetan ari diren titular nahiz interinoen datuak, bestetik. Lehenengoak balio digu urteotako bilakaeraren berri izateko. Bigarrenak balio digu IV. Plangintzaldian barruan sartuko diren langileei buruzko informazio zehatza izateko.

Ikus ditzagun titularrei buruzko datuak.

- Derrigortasun-data duten lanpostuetako langileei (2.680 langile) buruzko datuak honakoak dira:
 - Titularrik gabeko lanpostuak (interinoak): 986 langile (%37). Hauek, ia guztiek, egiaztaturik dute hizkuntza eskakizuna.
 - Dagokien hizkuntza-eskakizuna egiaztatu duten titularrak: 1.250 langile (% 47).
 - Dagokien hizkuntz eskakizuna baino baxuagoren bat egiaztatu dutenak: 129 (% 5).
 - Adinagatik salbuetsitakoak: 190 (% 7).
 - Ezer ere egiaztatu ez dutenak: 125 (% 4)
- **Ondorioz:** 1995 urtearekin alderatuta, urrats sendoa eman da urteotan:
 - % 115 gehitu da dagokien hizkuntza eskakizuna egiaztatu duten langileen kopurua.
 - % 34 gutxitu dira ezer ere egiaztatu ez dutenak.

- % 50 gutxitu dira adinagatik salbuetsitakoak.
- **Eta, ondorioz, abiapuntu moduan:** Euskararen ezagutza handia da herri-administrazioetan:
 - 3.000 langile lana euskaraz ere egiteko gaitasuna daukate.
 - Hala ere, gaztelania da euretariko gehienen lan-hizkuntza.
 - Ezagutza ezinbestekoa da erabilera gero eta handiagoa izango bada, baina ez da nahikoa. Faktore ugari daude euskararen erabilera behaztopatzen dutenak: ohiturak eta inertziak bai langileenak eta baita herritarrenak ere, lana euskaraz egiten hasteko kezka eta beldurra, egoera soziolinguistikoa, inguruan oraindik ere elebakar ugari izatea, prestakuntza profesionala gaztelaniaz jaso izana, hizkuntza bera oraindik ere gehiago estandarizatu eta trebatu beharra... Horregatik da beharrezkoa erabiltzeko aukerak sortzea eta erabilera bultzatzea.
 - Orain arte baino gehiago eta hobeto uztartu behar da euskararen ezagutza eskatzea ondorengo benetako erabilerarekin: hizkuntza-eskakizunak bitarteko hutsak dira, euskararen ezagutza bitarteko hutsa da, eta baliagarriak izango dira erabileraren zerbitzuan jartzen baditugu.
 - Eusko Jaurlaritzaren administrazio-zerbitzuak gai dira euskara ere pixkanaka beren lan-hizkuntza izan dezaten. Eusko Jaurlaritzak gaur badauka aukera euskara ere neurri batean bere lan-jarduneko ohiko hizkuntza izateko. Euskaraz lan egiteko gai diren langileak milaka izateak eskatzen digu potentzial hori euskararen erabileraren mesedetan jartzea. Urteotan ezagutza handitzeko egindako lanari etekina ateratzeko ordua da: herritarren hizkuntza-aukera errespetatuz, langileen artean euskara erabiltzeko ilusioa eta inplikazioa eraginez, malgutasunez, pixkanaka eta urtetan luzatuko den prozesu baten barruan.

IV. Plangintzaldiko derrigortasun-indizea

Planak bi oinarri nagusi izango ditu: alde batetik, arau legalek ezarritako derrigortasun-indizea betetzea, eta, bestetik, euskara ere administrazioko lan-hizkuntza eta zerbitzu-hizkuntza izateko urrats eraginkorrak ematea. Bi oinarri horien garapena jasotzen du Planak.

Ondorengoa da lanpostuen hizkuntz eskakizunei derrigortasun-data jartzeko aplikatuko den indizea, indarrean dauden 2001eko Biztanleria eta Etxebizitza Zentsuko datu linguistiko ofizialen arabera indizea:

$$\text{euskaldunak} + \text{ia euskaldunak} / 2 = \% 43,87$$

Ondorioz, euskararen ezagutza egiaztatzea beharrezkoa izango da 2.876 lanpostutan (2008ko uztailaren 7ko datuen arabera), eta merezimenduzkoa 3.680 lanpostutan.

Planaren oinarri nagusiak eta parte hartzaileak

- Herritarren hizkuntza-eskubideak bermatu: progresibitatea, lehen atentzioa, jendaurreko zerbitzuak, ...
- Lan-hizkuntza: Jaurlaritza barruan eta gainerako herri-administrazioekiko harremanetan, nola baita ere euskara harreman-hizkuntzatat aukeratzen duten herritarrekiko harremanetan.
- Eginkizuna: funtzio komunikatiboren bat edo batzuk euskaraz egitea.
- Jaurlaritzako departamentu bakoitzak eta erakunde autonomo bakoitzak erabakiko du zein funtzio komunikatibotan izango den euskara lan-hizkuntza. Departamentu bakoitzak eta erakunde autonomo bakoitzak zehaztuko ditu bere Planean bere helburuak, beti ere euskara zerbitzu-hizkuntza eta neurri batean lan-hizkuntza ere izan dadin.

- Erabilera Planean sartu eta parte hartuko dutenak ondorengoak dira:
 - Dagokien hizkuntz eskakizuna derrigorrezkoa izanik egiaztaturik duten langile guztiak, titularrak nahiz interinoak: 1.962 langile (lanpostu guztien % 30).
 - Gainera, Planean parte hartzeko gonbitea egingo zaie, eta euren hala nahi badute parte hartu ahal izango dute, dagokien hizkuntz eskakizuna derrigorrezkoa ez izan arren egiaztaturik duten langileak: 1.011 langile (lanpostu guztien % 15).
 - Halaber, Planean parte hartzeko gonbitea egingo zaie, eta euren hala nahi badute parte hartu ahal izango dute, dagokien hizkuntz eskakizuna derrigorrezkoa izanik dagokiena baino bat baxuagoa egiaztatu dutenak: 183 langile (lanpostu guztien % 3).

Ondorioz: 2.300 langile inguru espero dugu Erabilera Planean zuzenean parte hartzea, inoiz baino langile gehiago.

Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako irizpideak

- Araubide orokorra, helmuga.
- Berrikuntzak:
- Administrazioaren jarrera aktiboa, herritarraren hizkuntza-aukera errespetatuz beti eta ororen gainetik, ezer inposatu gabe, baina aukera guztiak eskainiz eta bermatuz.
- Sortze lanaren sutapena, itzulpenaren morroi izan gabe.
- Kalitate komunikatiboa bermatuz.
- Idazketa elebiduna, korredakzioa.

Erabilera planetako lehentasun komunikatiboak)

- Azterketa komunikatiboa: erabilera-planetako langileen lan-jardun nagusiak eta ahozko nahiz idatzizko komunikazio esanguratsuenak.
- Lehentasun irizpideak:
- Herritarrekiko harremanak
- Euskara lehenetsi dutenekiko komunikazioa
- Administrazio barruko eta administrazio arteko sareak.

Makulu ezinbestekoa eta erabakigarria: berariazko prestakuntza, bide

- Ikastaroak eta trebakuntza: orokorra, baina oso bereziki eta batez ere lan-jardunak euskaraz arazorik gabe egiten ikasteko eta lanean aplikatzeko.

Beste makulu garrantzitsua: antolakuntza-egiturak

- Antolakuntza-egiturak (hizkuntza Ofizialen Kudeaketarako Batzordea).
- Jarraipena: urtez urtekoa, tartekoa eta bukaerakoa.

Amaiera moduan

- Euskararen erabilera administrazioan: hori da ardatz nagusia. Ezagutzatik erabilerarako pausoak pixkanaka baina etengabe ematen joateko mekanismoak jartzea da IV. Plangintzaldirako helburua.
- Euskara eta gaztelania biak nahi ditugu administrazioan ere, baina gaur baino egoera orekatuagoan, bien arteko berdintasun handiagoan, ahulena dena (euskara) indartuz.

- Herritarren hizkuntza-eskubideak gero eta gehiago eta neurri handiagoan benetan errespetatzeko neurriak hartzea bultzatu nahi dugu.
- Ez goaz erabilera inposatzera: euskara erabiltzeko aukera egiazkoak sortzea da helburua, eta aukera horiek baliatzea. Euskarak ez dauka zertan bigarren mailako hizkuntza izanik administrazioan, euskarak ere administrazioan zerbitzu eta lan hizkuntza normala eta ohizkoa izan behar du gaztelania bezala.
- Elebakartasuna ez dugu gogoko, ez eta administrazioan ere. Elebakartasuna ez da eskubidea, muga bat baizik, gero eta muga handiagoa gero eta elebidunagoa eta eleanitzagoa den gizartean. Elebakartasuna administrazioak gizarte berrian nahitaez behar duen aurrerakuntzarako, modernitaterako eta berrikuntzarako muga bat da. Gureak diren bi hizkuntzei egin nahi diegu tokia administrazioan. Hori beti delako onuragarri hizkuntza guztientzat, hizkuntzen arteko bizikidetzarako eta hizkuntza kontuetan ere anizkoitza den gure gizartearen bizikidetzarako.
- Beti eta ororen gaineratik herritarraren hizkuntza-aukera indibidual eta librea bermatu behar da.
- Euskararen erabileraren alde modu proaktiboan, pixkanaka, progresibitatea aplikatuz, kontsentsuak landuz jardun behar da, malgutasunez baina etengabe.
- Kontua, ordea, ez da bakarrik euskara erabiltzeko aukerak sortzea. Gero aukera horiek baliatu egin behar dira. IV. Plangintzaldia arrakastatsua izango da baldin eta Jaurlearitzako administrazioako arduradun politikoak eta langileak inplikatzeko badira, baina ez horiek bakarrik: arrakastatsua izango da baldin eta euskal hiztunek euskara erabiltzeko aukerak baliatzen badituzte. Planak plan, etorkizuna, beraz, bakoitzaren esku dago neurri handi batean. Euskararen erabileraren giltza gero eta gehiago dago herritarron esku, baita administrazioan ere.

Donostia, 2008ko uztailak 9

Patxi Baztarrika, Hizkuntza Politikarako sailburuordea

